

ARBOLA-JENDE SOLIDARIOA

Bizitza emozional betea dute zuhaitzek: gai dira sentitzeko, oroitzeko, hurkoa zaintzeko...


 **ZIENTZIA /** Mikel Zubimendi Berastegi

Basoan bizi diren iratxo eta maitagarrientzat ez da sorpresarik egongo jarraian aletuko dugun istorio eta hausnarketa honetan, aspal-didanik ezagutzen baitituzte arbolon misterioak. Badakite beren kumeei “titia ematen” dietela. Usain, soinu edo seinale elektrikoen bitartez mintzatzen direla. Izaki sozialak diren neurrian “gizarte zerbitzuak” dituztela; guk Osakidetza eta Osasun-bidea ditugun bezala, arbolek ere badutela osasun sistema kolektibo bat. Lagunarteko elkarteak, haurtzaindegiak, elkarrekiko amodioa edo oso partikular eta ezberdinak diren nortasunak ere badituztela badakite.

Ez dakit badakiten, baina badaezpada hemen utziko dut haientzat idatzita, gizakiak edo gure antzeko gainontzeko goi mailako animaliak garun-heriotzara kondenatuta gauden bitartean, literaturaren eta zientzia medikuen arabera, zuhaitzak egoera begetatiboan daude. Beste hitz batzuekin esanda, bizitza begetatiboa borondaterik, memoriarik eta sentipenik gabea dela uste dugula. Alegia, salbaziorik gabea. Eta hor nonbait imajinatzen ditut, gutaz barrezka, edo lotsaturik, gauza ororen neurri eta elikadura kateko tontor garela uste dugunok pentsatzen ditugun txorakeriekin. Eta gure pentsamendu horren eta gure jokabideen ondorioekin guztiz kezkatutik ere bai. Horrela imajinatzen ditut, bai.

Asko poztuko dira, baina, Alemaniako basozain batek idatzi duen liburuak sortutako iraultzarekin. Basoa eta arbolak beste begi batez ikusteko eskaini duen begiradarekin, haien misterioak ezagutarazteko erabili duen hizkuntzarekin, irauli dituen mentalitateekin. Izan ere, ez da gutxiagorako. Peter Wohllebenen “Arbolon bizitza ezkutua” liburua Europan fikziozkoa ez den liburu salduenetarikoa bihurtu da, Aita Santuaren beraren memorien liburua baino gehiago saltzera iritsiz. Baina ez hori bakarrik: Wohllebenen idazkera

Arbolak hierarkia eta banaketa lerroan hirugarren dauden izakiak direla uste da, hots, gizakien eta animalien azpitik. Nortasun, memoria eta erabakitze gaitasunik gabeko bizidun begetatiboak omen dira, egur eta oxigeno ekoizle mekanikoak. Antropomorfitikoak eta sozialki marabilla bat direla ikusi eta ikasiko dugu, baina, beste begirada batekin.



Arbolek badakite beren kumeei «titia ematen», usain, soinu edo seinale elektrikoen bitartez mintzatzen; badituzte «gizarte zerbitzuak», esate baterako, haurtzaindegiak eta osasun sistema kolektibo bat.

GAUR8

berritsu eta ulerterrazaren eskutik mundu berri bat erakutsi du. Hogeita hamar urteko lan esperientzian oinarrituta, orain arteko aurkikuntza zientifikoak gogoratuz, historia liluragarri bat utzi digu, arbolon abilitade miresgarriak erakutsiz, irakatsiz. Liburua irakurri eta gero, basoan onddo bila edo bueltaxka bat emanez berriz ere ibiltzean, ez dugu jada sekula berdina sentituko.

Ehunka izei, pago, haritz eta pinu komertzialki markatzeaz aspertuta, krisi psikologiko bertean murgildu zen Wohllebenen, eta, hala, bere egunerokotasunari buelta erradikala ematea erabaki zuen. Ahuldutako arbolak egurretarako markatu baino, arbolon erresistentziarako ahalmen eta baldintzak hobetzeari ekin zion. Jardun horretan pilatu dituen jakintza, ideia eta proposamenak bildu ditu liburuan.

Arbolak ikusteko eta aztertze-ko formula oso antropomorfitikoa du Wohllebenek. Harentzat basoa gizartea da. Arbolek elkarrekin ongi bizitzeko sortu duten ekosistema perfektua. Hizkera laua, gizatiarra darabil, emoziorik gabeko hizkuntza zientifikoarekin zerikusi gutxi daukana. Esate baterako, arbolek beren kimuei “titia ematen” dietela esatean, ez du azalpen gehiagorik behar, denok ulertzen baitugu esanahia.

PLANETAREN BIRIKA BAINO GEHIAGO

Basoan, izaki indibidualak baino osoki izaki sozial diren arbolon bizitzaz asko dakigula uste dugu, nolabait etxeko ditugula, haietara ohituta gaudela. Topiko batzuk ere gure-gureak egin ditugu, “basoak planetaren birika dira” eta antzekoak kasu. Eta, antza, horrekin konformatzen gara. Baina, ezagutzen al dugu beren espiritualtasuna? Ez, ez dugu ezagutzen, arrotz zaizkigu beren mintzaira eta sekretuak.

Arbolak eta basoak ez dira soilik planetaren birika. Ez dira oxigeno eta egur ekoizle mekaniko huts. Arbolez, eta, oro har, landareez pentsatzean, kode genetiko zehatz bati jarraitzen dioten robotetan pentsatzen dugu. Baina, ez.

Beren aukerak sortzen dituzte, aukeratu egiten dute, egin behar dutenaren inguruan erabaki egiten dute. Besteak beste, memoria eta nortasun ezberdinak dituztelako. Edo beste hitz batzuekin esanda, arbolak ez dira bizitza begetatibo gisa ulertzen dugun horren adierazleak. Eta hari horretatik tiraka, etikoki ez da onargarria arbolak gure nahieran tratatzea, erru sentsazioziorik izan edo hausnarketarik egin gabe.

Bai, guk bezala, arbola-jendeak ere lagunak ditu. Lagunari argia ez blokeatzeko sarri adarrak kontrako aldeetarantz bideratzen dituzte arbolek. Bakardadea sentitzen dute, mina izatean garrasi egiten dute, elkarrekin hitz egiten dute lurpeko sustrai sare miresgarriari esker –“basoko Internet”–. Arbolak beren mezuak elkarri pasatzeko gai dira, beren larritasunak eta pozak, sustraian zehar, onddo sare baten bitartez barreiatzen dituzte seinale elektrikoen bitartez. Ahultzen doazen arbolak zaintzen dituzte, ahulenen gaineko ardura hartuz. Beren kimuak eta zuhaixkak elikatu egiten dituzte, eta, beren komunitatea zaintzearren, beste batzuei basoan sarrera eragotzen diote.

Gutxi gorabehera, beren sustrai eta onddo sarearekin gure nerbio sistemak egiten duena egiteko gai dira. Batzuek guraso bezala jokatzeko dute, besteek auzokide jator gisa. Badira itzala emateaz gain aurkariak dituzten espezien aurrean matoi to talak direnak ere.

GU BEZALA GAIKOTZEN DIRA

Arbolak, pertsonak bezala, gaixotu egiten dira. Izurriak, beren harrapari propioak pairatzen dituzte, eta, hala ere, ongi defendatzen dira. Izurri batek erasotzen ditueanean “zuku” bereziak jariatzen dituzte harraparia uxatzeko, eta hainbat espeziek gas berezi bat jaurtitzen dute hurkoak arriskuaz ohartarazteko, toxinak jariatzen has daitezen eraso jasan baino lehen. Beldar batek hozkada bat ematean arbolaren ehunek aztoratu egiten dira, seinale elektrikoak bidaliz parasitoen apetituari aurre egiteko.



Bizitza begetatiboa borondaterik, memoriarik eta sentipenik gabea dela uste da. Alegia, salbaziorik gabea. Arbolak, baina, ez dira inondik inora ere horren adierazle

Arbolak eta basoak ez dira soilik planetaren birika. Ez dira oxigeno eta egur ekoizle mekaniko huts. Ez dira kode genetiko zehatz bati jarraitzen dioten robotak

Beren sustrai eta onddo sarearekin gure nerbio sistemak egiten duena egiteko gai dira arbolak. Lurpeko sustrai sare miresgarriari esker –«basoko Internet»–, beren mezuak elkarri pasatzeko gai dira zuhaitzak, beren larritasunak eta pozak partekatzen gai.
GAUR8

Guk bezala gauez sosegua behar dute arbolek, deskantsua. Horregatik egunez hostoen bidez arnasten dute eta gauez sustraiekin udaran hostoak dituzte eta neguan ez. Horregatik demostratu da hirietako argiztapenak, adibidez, haritz asko gaixotzen dituela, %4ko heriotza tasa eragiteraino.

Lorategietako edo hirietako arbolek ez dute basoan daudene bezala jokatzeko. Bakarrik daude, sarritan isolaturik, eta, horregatik, ez dute nortasun berdina. Beren sustraiekin muga fisikoak dituzte, hormigoizkoak askotan, eta lur oso pobrea dute, humus gabea. Arbola biziak dira, bai, dekoraziorako erabiliak, baina usu bizitzarik ez duten lur eremuetan landatuta daude.


Beraien artean oso ezberdinak diren espezieak elkarrekin bizi dira lorategi edo hirietan, baina ez dira elkarri laguntzeko gai. Hazkunde geldoagoa dute, nolabait esatearren, “titia hartzeari” lehenago uzten diotelako. Bestela esanda, kanguru edo izurde batek haurtxo bat hazterik ez duen legez, espezie ezberdineko zuhaitzak ez dira kimuen hazkuntzan elkarri laguntzeko gai.

ARBOLA BAT, NORTASUN BAT

Sustraiaren bitartez mintzatzen dira arbolak. Gaixo diren arbolak edo loratze azkarregia edo gehiegizkoa dutenak, eta, beraz, gehiegi jaten ari direnak, sustraian bidez jakinarazten diete hurkoei. Eta sustraiekin emango diete elkarri beharrezko elikadura edo sendagaia (soluzio azukretua izan ohi dena).

Horrela denak behar duten oreka hori mantentzea lortzen





dute. Hain daude komunikatu-
ta, hain dira komunitate inte-
gratua, ezen gertatu izan den
tximista batek arbola bat jo eta
inguruan sustraiak partekatzen
dituzten dozenaka arbola ere
deskarga berean hiltzea.

Arbolek nortasun ezberdinak
dituzte: pagoak, adibidez, arbola
“matoiak” dira; zumea, aldiz,
poeta bakarlaria da. Memorian
zizelkatuta dituzte soluzioak,
badakite zer egin behar duten
adarrak mozten dizkietenean
edota intsektuek sustraiak era-
sotzen dizkietenean.

Pagadia, adibidez, biziraupen
sistema indartsua da. Oso, ikara-
garri sozialak, dira pagoak. Lau-
rehun, bostehun urte dituzten
eta hosto berde bakarra ere ez
duten motzondoek, adibidez, bi-
zirik jarraitzeko ahalmena gara-
tu dute. Euskal Herrian hain
eder eta ugariak diren pago eta
haritzek, konparazio baterako,
familia bat bezala, komunitate
autoeratu bat bailiran jokatzeko
dute; hain zuzen ere, horrek
ematen die zuhaitzoi milaka ur-
te iraun dezaketeko basoak era-
tzeko gaitasuna. Izeiek beste ho-
rrenbeste egiten dute.

Tribuak osatzen dituzte, triba-
lak dira oso, genetikoki pertso-
nak eta medusak bezain ezber-
dinak izan daitezkeen espezie
ezberdinetako arbolak. Pagoek,
esaterako, haritzak ahultzerai-

no, makaltzeraino jazartzen di-
tuzte. Lehenago esan bezala, zu-
mea bakarti bokazionala da, ha-
ziak beste arboletatik urruti
egiten du hegan, kilometro as-
ko. Esprinter hutsak dira. Iristen
lehenak dira, bai, baina hiltzen
ere azkarrak dira oso: ehun urte
pasa eta gero ez dira gehiago ar-
nasteko gai eta hil egiten dira.

LANDAREEN ARTEKO MAMUTAK

Landareen arteko mamutok,
egurrezko hezurak dituzten
erraldoiok, lurlean diren izaki
handienak izanda ere, ezezagun
dira oraindik baleak ikusteko
itsasontzi bidaietan dirutzak
gastatzen ditugun pertsonon-
tzat. Bai ala bai, basoetako biz-
tanleon inguruko ezjakintasuna
gainditu beharra dago.


Hartara, gure kontzientzian as-
palditik sustraitutako hierarkia
eta banaketa lerroak –pertsona

Euskal Herrian hain eder eta
ugariak diren pago eta haritzek
familia bezala, komunitate
autoeratu bat bailiran jokatzeko
dute. Hain zuzen ere, horrek
ematen die zuhaitzoi milaka
urte iraun dezaketeko basoak
eratzeko gaitasuna. Izeiek beste
horrenbeste egiten dute.

GAURB

**Bakardadea sentitu eta mina dutenean garrasi
egiten dute arbolek. Izaera eta nortasun
ezberdinak dituzte: pagoa, adibidez, arbola
«matoia» da; zumea, aldiz, bakarti bokazionala**

**Arbolak landareen munduko mamutak dira,
egurrezko hezurdun erraldoiak. Biziraupen
sistema indartsua dute; komunitate autoeratu
legez jokatzeko duten izaki tribalak dira**



lehenbizi, gero animaliak, gero
landare eta arbolak, eta, azkenik,
gauzak–, zalantzan jarri behar di-
ra. Gauza guztien neurria garel-
a dioen uste antropozentrikoa, ob-
jektuen munduan jaun eta jabe
diren subjektuak garel-
a dioen ustea zalantzan jarri behar da.

Eta, egiari egia zor, azken ha-
markadotan ilustraziotik dato-
rren uste horri arrakalak ater-
tzen ari zaizkiola esan daiteke,
bai. Esate baterako, teknologiaren
filosofo batzuen arabera gauzek
moral bat dute. Primatologoek
erakusten digutenez, gu eta gure
lehengusu tximinoen arteko mu-
gak orain arte uste zirenak baino
askoz ere lausoagoak dira. Esan
dezagun humanoa ez den horren
emantzipazioa ate joka dugula.
Gure enpatia zirkulua, uniber-
tsoa bezala, hedatzen ari dela
etengabe. Gizakia gauza guztien
neurri kontsideratze hori azken
hatsa botatzen ari dela. Esan, dei-
tu, nahi bezala, baina zer edo zer
aldatzen ari da, horixe baietz.

ARBOLENTZAT ESKUBIDE LEGALAK?

Animalien eskubide edo ongiza-
tearekin gertatu den bezala, arbo-
len misterioak ezagutu ahala, ar-
bolez hitz egitean animaliez hitz
egiten dugun terminoetan hitz
egingo dugu ziurrenik.

Ez dago jakiterik etorkizun
hurbilean arbolek eskubide legal
aitortuak izango dituzten ala ez.

Baina, aurreratu daiteke basogin-
tzako industrian aldaketak etorri-
ko direla. Ezberdintasunak ezber-
dintasun, gure elikadurarako
animalien hazkunde intentsibo-
ak dituen barrabaskeria batzuk
errepikatzen direla aitortuta ere,
mentalitate berri baten lehen
printzak ageri dira.

Izakiak animalien eta landare-
en artean banatzen direla eraku-
tsi ziguten aspaldi. Baina bereiz-
keta horrekin tematuta segitzeak
zentzurik ba ote du? Pertsonaren
enpatia zirkulua zabaldu ahala,
animaliak bezala, gu geu bezala,
arbolek ere usain, soinu edo sei-
nale elektrikoaren bitartez nola ko-
munikatzen diren gero eta argia-
go ikusita, ikasita, muga horiek
desagertzen joango dira.

Naturako “objektuek”, adibi-
dez ibaiek edo ozeanoek, edo
landareek eta arbolek, eskubide
legalak izan behar dituztela de-
fendatzen duenik ez da falta.
Zergatik izan behar du, eman
ahal zaio, nortasun juridiko bat
mankomunitate edo merkataritza
konpainia bati, eta ez baso
edo arbola bati?

Imajinatzen hasita, imajinatu
ahal da behinola beltzei edo
emakumeei aitortzen ez zitzaiz-
kien, eta, egun, teorikoki bede-
ren, aitortzen zaizkien eskubi-
deak lege, ingurune naturalari
ere aitortuko zaizkiola eskubi-
deak etorkizunean. Norabide

horretan mugitzen ari da lurpeko korrante bat. Adibideak ez dira falta. Zeelanda Berrian, esaterako, Whanganui ibaiari entitate legal gisako estatusa eman zaio. Ekuadorren konstituzioan naturari eskubideak aitortzen zaizkio. Ez hil edozein animalia edo ez moztu edozein landare Suitzan, izan ere, hango konstituzioak ere animaliak eta landareak babesten ditu. Ama Lurraren Eskubideen Deklarazio Unibertsala ere idatzia dago hor nonbait. Ttanttaka-ttanttaka, geldoegi seguru aski, baina ari da korrante hori handitzen.

ARBOLA-JENDEA, HOTS, GIZA-JENDEA

Izan ere, arbolen eta animalien arteko paralelismoak harrigarriak dira. Edo, nahi bada, arbolen eta gizakien artekoak. Antropomorfitikoa diren moduetan komunikatu eta elkarri laguntzen gai baitira. Arbola-jendeak “gizarte zerbitzuak” ditu, osasun sistema kolektiboa, lagunarteko elkartek, haurtzaindegia... Broma gutxi.

Gizakiak ez diren horien, landareen eta arbolen eskubide eta interesen gainean hitz egiteak, ezinbestean, gizateriaren ispi-luan gure buruak begiratzera

behartzen gaitu. Gizaki zer egiten gaituen gure buruei galdetzera, besteengandik zerk ezberdintzen gaituen hausnartzera. Arbola-jendearen eta giza-jendearen, bi-bien gizartearen arteko paralelismoak marraztera.

Eboluzio naturala ez dago jada norbera eta besteen arteko konpetizio hutsaren bitartez azaltzerik. Egia da, baina, indibidualismoaren garai oparoa bizi dugula, oso preziatua dela singularraren lehen pertsona, egoak disparatuta dabilatzala nonahi. Begirada zorroztu, arreta ipini eta arbolak aztertzeke denbora hartuta, baina, modu horretan ez dutela funtzionatzen oso agerikoa egiten da. Beste kodigo batzuk dituzte, beste kategoria bat, nolabait esatearren, utopia sozialistaren ernamuina daramate altzoan.

Gai direnak biziko direla bada bizilegea, arbolek honela itzultzen dute: ahula zaindu eta lagundu egin behar da beti, basoak –arbola-jendearen gizartea– osotasun bezala funtzionatu ahal izateko, denon beharra du, ahul eta makalenena barne. Eta gisa horretan, oroigarri paregabea oparitzen digute arbolek, gizarteak harmonia betean nola

Arbola-jendearen eta giza-jendearen arteko paralelismoak marraztuz, arbolak antropomorfitikoa diren moduetan elkarrekin komunikatzeko, elkar laguntzeko gai direla ikusita, eboluzio naturalaren gaineko begirada aldatzen da.

GAUR8

Arbola ahula zaindu eta lagundu egin behar da beti, basoak –arbola-jendearen gizartea– osotasun gisa funtzionatu ahal izateko, denon beharra baitu, ahul eta makalenena barne

Kontzientzian sustraituta ditugun hierarkia eta banaketa lerroak –pertsona lehenbizi, gero animaliak, gero landare eta arbolak, eta, azkenik, gauzak– zalantzan jarri behar dira

funtzionatu beharko lukeen erakusten duena.

BEGIRADA ETA HIZKUNTZA ALDATU

Antropozenoa ofizialki aldarrikatu den honetan, hots, 11.000 urte eta gero holozenoa atzean utzita gizakien eraginez aro geologiko berria abiatu dela, gure ekintzen ondorioak, aztarnak, gero eta handiagoak, atzeraez-nagoak bilakatzen ari direla inork gutxi ukatzen du. Eta gero eta adostasun unibertsal handiago bat sendotzen ari da: ezinbestean aldatu behar ditugu gure begirada eta hizkuntza.

Salbaziorik izango bada, alboratu egin beharko dugu elikagaien kateko tontor eta planeta- ren jaun garela dioen ikuspegi

harroputza. Izaki bakar eta errepikaezin garela, gure ustezko inteligentziatik eratorritako eskubide eta pribilegio eksklusibo eta eztaba daezinen jabe.

Eta hizkuntza berria ere beharko da. Sarriegi, zoritxarrez, natura arimarik gabeko makina bat bezala ulertu dugu. Eta, ehunenekoak gora ehunenekoak behera, gizakiok %90 batean emozio garela ahaztuta, alferrik eta etxekalte, natura pasio eta emoziorik gabeko hizkuntza zientifiko batekin adierazi nahi izan dugu.

Aldatu beharko dugu, bai. Behingoz barneratuz aldaketa hori izango dugula, izatekotan, gure existentziaren forma eta berme bakar.

